

# BURUZ ETA BIOTZEZ LIBURURAK

Erri batek bere buruaren ezagutza bear du aurrea. Bere fatorri, iazera, gizaletan zear ekarri duan bidea, egosi dituan oitura ta le... geak sortu duan giza-emakume maila, ta abar ta abar... Ori guzta aztartua ta ongi ikasia izan bear du, zerbait izatea nai duan erriak.

Gure erriaren nortasun eta berezitasuna, mundu guzian ezaguna ta zabaldua dautzake. Lotsagarria litzazuke, gerok c jakin eta ajolaga-be iraungo ba-gendu.

Gure Euskalerrri txiki onek mundu osoan ditu bere seme-alabak. Ameeriketako lurretan batez ere, gure abizenak alde guzietara za' aldudak dandu. Euskaldona alde guzietan begiratua ta aintzat artua ikusten degu.

Onelako zabalera artu duan erri txiki au, ez da edozein, Europa barruan ur arteko lur bat bezela iraua du Edestian zear. Beste guzian izkuntzak, ikusatu dira; latinak jan zituan aietan itsegiten ziran izkerak Euskalerrriak, bere izkera osorik gotze du eraso orren kontra.

Sartu gaitzen, beraz, gure erri onen sustrai eta erroetan, Sakon jo dezagun gure gizon eta emakume fatorren bizitzetan; gure idazle ysoen lanetan, olerkariak dirala, eteder-zaleak dirala, musikariak dirala, margolari, arria lantzen dakitenak ditugula, itzasoak eta legorak arakatu dituztenak dirala, sal-erosketa bideak urratu dituztenak dirala.

Aurrea, gauza olek guziaz argitara atera bear ditugu. Gure gizonen, erriaren, oitura, lehen, edestiarren berri jakiten, satatu bear degu, Leugo bideak gaitzake, bide berriak ugaldu ditzagun, gure erria mailarik goienara jasotzeko.

Baiña ezaguna onek ez du jakite-utsa izan bear. Jakintza otzak ez ditu eraginik ekarriko; ez gaitu lora eramango. Gure txistuaren soina, mendigoizaleen iardia, dantzarien arina, liburuon aztarketa, lan lila izango litzake, burutik biotzera jektiko espaltizatu.

Gure etxea ezagutzen, gure edestia arruotzek, gure giza-maila argitaratzek, lehen urtziko luke gure giroa, jakite au guziaz mailtasun z berotzen ezpadeko. Bear bezelako ezaguerak, berez dakar ezagutzen du ur mailtasun.

Gure lana, ez dedilla, beraz, buruan gelditu; ez dezagula gure jakitea lepotik gora lito. Jalo gibeaneko eskuartean izan degun sberstasun au, zenbat eta geiago ezagutzen degun, biotzera jektu bear degu. Etxea, mailtasun galdiaz suspertu bear degu. Ama xaarrak, seme-alaben eta lloben berotasuna bear du, ajolagabekeriaren leizean gal ez dedin.

E.U.T.G. eta Euskaltzaindia, alkarren laguntzarekin euskal alfabetizazioari buruzko lanetan ari da. Euskaldunik geienak, aspaldi Andima lbiagabeitia adiskide zintzoak esan zuen bezela, alfabetoak bai dira, beren izkuntzan. Ez euskeraz irakurri, ez euskeraz idazten ez dakielako.

Gaitz au euskeltzaleen artean bertan ere arkitzen degu. Geienetan, besteen euskalkiak ezagutzen alegindu ez direlako, ez bai dute ezer ulertzen.

Baiña, gogoan izan irakurtzen eta idazten jakitzeak, soilik, ez duela balio aundirik baldin jakinduria ori erabiltzen ez bada.

Jenderik geienak ez du liburuak erosteko oiturarik (erosi ta irakurri) ta orrek kalte ikaragarriak dakarzki kulturaren desarrolloaren alderako. Gaurko kulturadun erri aurreratu-tan liburutuan arkitzen bai da jakintza guziaz.

Xina-ko jakituri xaarrak dio, munduan gizonaren eginkizun nagusiena dala arbola bat ipini, liburu idatzi eta seme bat izan. Guk, gutxiagorekin ere frutu ederrik izango genduke gure inguruan.

Inoiz euskeraren alde itz onak esan dituzten zenbait euskalduni eskeini izan diegu, gure gille gaxoak beren boltzillotik galduez argitaratutako liburuak ta amar edo ogei duro liburutuan ematea astakeria iduritu zale. Baiña, zineon, futbollean, txikiteon, afari batean errez ematen dituzte bere txanponak.

Gure jendearen artean, liburuak erosteko oitura zabaldu bear da. Txikitoak edatea bezin premiñazkoa dala sartu bear zale beren buruetan. Gizonak, bere ekonomiarik jutzue-nean ere, bere presuestotik zaitziko ber liburutarako izan bear luke. Liburutuan arkitu geneza munduko kultura guziaz. Liburuen bidez ez da garesti saltzen kultura, irakurri nai duanarentzat. Liburunik txarrenak ere zerbait erakusten du. Ta, liburu ta maixua, noiz nai galdetu ta erantzuten dakiana.

Baiña, irakurri esan det; ta ez erosi bakarrik; irakurri. Itxurak ez dira aski. Badira zenbait dirudun liburu dotoriak erosten dituztenak, beren etxe zokoak apaintzeko; baiña ez beren burua. Oiek, liburuak, enkuadernazioaren kolore ta itxura politetatik juzgatzen dituzte. Baita ere, badira, azal utsak erosten dituztenak ere. Azken oiena gaitzerdi da, beren buruen neurriko liburuak erosten bai dituzte: utsak.

Liburuak irakurtzea ere, egunero-ko eginkizuntzat artu bear du gizonak. Orduerdi, ordubete edo ezingo dana; baiña, irakurri. Irakurtzen duan erria kultura giroan aurrera joango da. Unamuno uxatu nai zuan «abajo la inteligencia» dei ura gerok uxatu bear degu, gure izatea kamustu ez dedin.

Liburu gabeko etxea, txoririk gabeko basoa edo arrainik gabeko errea bezela da: tristoragarria; bizitzaren iturriak ukatzen ditualarik.

Gaitera, liburuak erostea, kultura geierazitzen laguntzea da. Bearrezko laguntza.

Liburu onenak ez dira izaten garestienak. Baiña dotoreak bai; argitaratzeileentzat komertzialenak dira liburu dotoreak, zerbait diru ta kultura gutxi dan errietan. Ta, merkeen artean arkitzen dira beti gai mamitsu-enak, atsegiñenak edo jakintsu-enak. Ta, jakintza ez da gaztaroko estudioekin bukatzen. Gizon argia bizi guzian ari da ikasten, eta ortarako, Lin Yutang-ek bere liburu batean dion bezela: liburuak etxeko liburutegian, liburuak gelan, sukaldetan eta komunean; liburuak etxea ta etxekoak jaxten dituzte.

Bide ori artzen ez degun artean, etorkizunera, kulturaren iturriak le-gortuko zaizkigu.

Au irakurriaz, norbaitek esango du ia zertarako datozen liburusaltzaillearen erako itzok, Zertarako? Euskaldunok geure buruak arroxo agertzen ditugulako, arpedudan gabe argitaratzen diran liburuak 300 doi-doi saltzen diralarik —bai euskeraz eta bai ordezaz, baiña batez ere euskeraz—, aibeste billakak beren buruak euskeltzaleztat azaltzen dituztenean. Oroi, arten, alfabetizazioa ez dala aski izango liburuaren argitalpenak bere salneurrietan jartzeko aia zabalzen ez diran artean. Eta irakurri ezak bere kideko duan kulturazik ezagaitik aumitz jardungo gera eztabaidetan euskera-ren gautzatan Altubek aspaldi eraba; gitako gauzak alperrik berriztatuz. Ibsen-ek aspaldi urratu zituan teatru neurriari buruz, Whitman-ek atzean utzi zituan poesi erak berrituz. Ta ez nijoa ezer esatera Kierkegaard-en saiorei buruz, bere ize-na illunez lausotarik dagoalako gure unibersitarioren artean ere. Noiz-bait konturatuko al gera orrik daztozela gure kalte nagusiak.

Alfabetizazioaren ondorean, andik igarotzen dan bakoitzak, ar beza liburu (bear bada iztegiaren laguntzarekin) ta aldizkarietan liburu-ari egindako aburuak ezaguturik, joan dedilla bere kabuzko aburuak jartzen, bere irizpideak geitu ta obetzeko bide bakarra danez, eta aurrera!

Guzion artean jaso bear degu kultura. Ez pentsa jaun jakinzale batzerei bakarrik dagoekin gauza dala kultura. Ezi Guzion egin bearra da. Ta, izan gogoan, gaurkoz, euskaldunok or degula gure utsunerik larriena.

JUAN SAN MARTIN



## Norberarengandik igesi

J. M. AGIRRE

Gizona bere otistentzia mosteko lain dugu. Gaur egun —eta inoiz baino gehiago— ba dira beren burua hiltzen dutenak.

Ba da, ordea, beste norbera-hiltze era bat ere lehena baino errezagarri ta surriagoa: alienazioa, alegia. Bigarren heriotz klase hau ugaria dugu gaurko munduan, egungo gizartean. Gizonak bide bi ditu atzetzeko; edo bere izatea dan bezela eta dituen prolema guztiekin onartu, edo bere izatea ahaztu eta bere prolema kontzientzia galdu. Azkeneko hau da nagusi gure artean, geienak honi hiltzen diete. Bere prolema aurrez aurre desafiatu beharrean, bere burua engaitzen du gizonak.

Gizonak gizon danez gero berekin ditu pairamen, sufrimen, grina, ta heriotza bera ere. Gizonaren izatsari lotuta dionaz hauek denak. Gizonak beregandik kendu nahi litzuke, baino ezin. Zuztarretik ezin atera dituen ezkerro, ahaztea pentsatzen du, bere buruari trufa egitea.

Zibilizazioa du hontan geienik laguntzen diona, kezka horiek isiltzeko, aukera jartzen diona, ikus besterik ez dago gaur egungo hiri molde bat. Sufrimena, kezka ta zereoren prolema sor lezakean oro izkuntzan dago (Gaxo etxe, suburbio, eskale, hil herri) Agirian, uldiz, plazerra atsegiña ta ametsa sor lezakena dena.

Griñak asetzeko aukera finenak konfort-zibilizazio honek, berak eskeintzen dizkitu.

Ba dirudi prolema guztiak konpondu dirala, ez dagoa kezka biderik.

Hala ere gizonaren karkartasuna ez da sekula itozten erabat, gizonaren larrimnak deadar dago. Bakar-dadaren bildur da gaurko gizona, ez daki bakarrik egoten.

Gaurko radio, aldizkari ta liburu askok bere nortasuna arkitzea ez baiña, bere errealdadetik alde egitea bultzatu ohi dute gizona.

Erlitzi, filosofoi ta kultura ere iges leku dira askotan, norbera bizitzan konprometitzeko ez baiña bakoitzaren luzimendurako ta denbora pasarako diranean.

Beren izate osoa sportetan (futbolea, txirindularrietan e. a.) ipiñtzen dituen gizonengan ez da arkitzen alienazioa besterik.

Gaurko gizonak formula asko dakizki, kontu asko, baino gauzik beharrena palta zaito: pentsatzea. Ez du pentsa nahi, aspertu egiten da.

Personalitaterik ez duen gizontxo hau anonimatuan izkuntzen da, artalde bihurtzen da. Artalde edo masa hau moda zale da, aldakor. Bizipatru gizonak gidatzen dute, haien eskuetan dago.

Gizonik gehienan ilioi masa da. Korriente huntan erortzen dira anesleri guztiak.


Gizon izan nahi duenak korriente honen kontra nahi ta ez joan behar.

Prolema ez danean dena ondo dijala uste bide dute batzuk.

Gaste asko gazterik zahartzen dira, ikara dute: zertako bururako? diote.

Gizonaren dialektika hontan dago: zahar edo gaste, norberaren iube edo masaren menpeko, burukalari edo burges, gizon edo masa, ni edo norhain.

Gizonak, gizon izan nahi duenak ezin saiestu ditza-ke berari ta bere herrirri buruz planteatzen zaizkion arazoak. Konplikazio gabe ta segurantzia osoz joku nahi dutenak ez diote munduari biltzada handirik emango. Arriakatzen ez denari ez zaito loteririk tokatzen.



**ARRAZADI YAR J. M.**  
Era guzietako seguroak  
Barzelona/ko  
«LA CATALANA»  
Seguroetako ordezkarie  
Gipuzkoen  
S. Marcial, 33 entlo.  
Urrutizkia 19226  
DONOSTIA

**Ezkongaiak ta gañontzekoak entzun**  
Era guzietako mueble aukera etxe ontan arkituko dezute  
—O—  
«MANUFACTURAS ZARAUZ»  
—O—  
Lantokitik Etxera  
DONOSTIA n:  
Ernari kalean 7garrena  
ZARAUZ' en  
Santa Marina kalean 26'garrena